

LANDAGRAFIAren helburuetako bat izan da zenbait gailu sortzea auzoko flora balioesteko, ibilbide, ezagutza eta topaketa berriak iradokiz. Doako jarduera bat eskaintzea da proposamena, 24 ordukoa, 0 kilometrokoa, karbono-aztarnarik gabekoa, irisgarria eta adin guztientzakoa: landarediaz gozatzuz ibiltzea. Horretarako, hainbat material sortu dira, hala nola espezieen mapa eta fanzine bat. Material horiek ikusi, begiratu, inprimatu, tolestu, oparitu, hormetan itsatsi... egin daitezke. Koloreztatu, gainean marraztu, moztu eta, batez ere, horiekin jolas egin dezakezu. Horretarako, zenbait joko-proposamen egin eta beste edozein imajinatzerara gonbidatzen da.

1. Flora - zenbakia

Lortu 1etik 100era bitarteko zenbakiak dituen materialen bat; pilotatxoak, fitxak, paper idatziak... izan daitezke. Aukeratu zenbaki bat ausaz eta begiratu zerrendan zer espezie den. Bilatu mapa markatzen duen espezie horren aleak, eta ibili auzoan batetik bestera.

2. 1-8 ibilbidea

Banatu paper bat 8 zatitan, eta idatzi zenbaki bat 1etik 8ra horietako bakoitzean. Bota gorantz eta hartu bat. Zenbaki horretatik abiatuta, joan fanzinean ezarritako 8 lekuetara, horietako bakoitzean dagokion testua irakurriz.

3. Landare-alfabetoa

Bilatu espezieen zerrendan, alfabetikoki antolatuta, zure izenaren antz handiena duen landare edo zuhaitzaren izen zientifikoa. Lotu zaitetz landare horrekin bizitza osorako.

4. Izen berriak

Aukeratu 10 espezie, zoaz bisitatzerara, eta oparitu izen berri bat.

5. Ustekabeko topaketa

Ahaztu ezagutza botaniko guztia, hurbildu aurkitzen duzun lehen zuhaitz edo landarera eta begiratu lehen aldia balitz bezala.